

IKUSMIRAN 11

Euskal Herriko langileriaren
lan eta bizi baldintzak

Ondorioak

2022ko AZAROA

11

Ikusmiran 11 | 2022ko azaroa

Euskal Herriko langileriaren lan eta bizi baldintzak

Bilatzailea

SAR HITZA	5
ONDORIO POLITIKO NAGUSIAK	6
ONDORIO NAGUSIEN AZTERKETA.....	8
1. Hego Euskal Herriko 25 eta 64 urte arteko herritarren %53,52a egoera prekarioan dago, lan duinik gabe eta diru sarrera eskasekin.....	8
2. Pentsiodunen %34,5ak 1.000€ baino gutxiago kobratzen du	9
3. Soldata arrakala egiturazkoa da.....	10
4. Aberastasuna gero eta modu desorekatuagoan banatzearen ondorioz, pobrezia eta bazterketa soziala lehen mailako arazoa da Euskal Herrian.....	11
5. Langileok erosahalmena galtzen ari gara	11
6. Etxebizitza gastuaren igoera bortitza ematen ari da.	13
7. Lan erreformak ez ditu lan merkatuko arazoak konpondu eta patronalak neurria hartu dio.	13
8. Zerbitzuetan oinarrituriko lan merkaturanzko joera nagusitzen ari da	14
9. Egungo enplegu prekarioak ezin du bermatu langileon bizitza duina	15
10. Lan baldintza duinen aldeko konfliktibitatea handitzen ari da.....	15

SAR HITZA

Eskuarte duzue, 11. Ikusmiran Euskal Herriko langileriaren lan eta bizi baldintzak, 2022. urteko euskal langileriaren lan eta bizi baldintzen azterketa egitea xede izan duena.

Datuen azterketarekin hasi aurretik, gure lanean eragina izan duten hiru aipu egin nahi ditugu. Izan ere, datu batzuk agertzeko zailtasunak topatu ditugu, 2020. urtean COVID19ak bizkortutako sindemiak, herritarron bizitzak goitik behera zeharkatzeaz gain, eredu ekonomiko kapitalista ere baldintzatu baitzuen.

BAT

Azken bi urteetako errealitatea datuetan islatzeko ezintasunak izan ditugu, erakunde ofizialek maiztasun txikiarekin argitaratzen dituztelako hainbat datu zein estatistika. Ondorioz, konplexua den errealitatearen argakia osatzeko garrantzitsuak diren hainbat datu 2020. urtera arte besterik ez daude eguneratua (INE-ren soldata egiturari buruzko inkesta edota Eusko Jaurlaritzak egiten duen "Pobrezia eta Ezberdintasun Sozialei buruzko inkesta" esaterako.

BI

Bestetik, eskuarte ditudun datuak tentu handiz aztertu behar ditugu, hainbat sektore ekonomiko pandemiak eragindako ia erabateko geldialditik hazten ari baitira. Kasu batzuetan 2020ean izango zuten egoera naturalera etortzen, baina hazkunde fase gisa aurkezten zaiguna.

Hazkunde aurreikuspen oso potenteak egiten ari dira, pandemian geldituriko ekonomia suspertzea espero zelako eta hori suspertzea zuzenduriko politika publiko eta diru funtsak bideratu zirelako, zabalkunde fase baten ikuspegitik. Horrela, 2020. urteko geldialdiaren ondoren, 2021. urtea errekupeazioaren urtea izan zen. Errekupeazio hori, ordea, ezin dugu ulertu ekonomiaren berezko joera bezala, baizik eta ez-ohiko egoera baten "normalizaziozat". Zentzu horretan, eredu ekonomikoaren bilakaera aztertzeke, maiz 2019ko datuetara jo behar izan dugu, joera errealek ezagutzeko.

Gerraren ondoriozko krisia etorri denean, aurreikuspenen jaitsiera edo hazkundearen moteltzea gertatzen ari da. Nagusitzen ari den sententzia, ordea, jaitsiera hainbestearinokoa ez dela da.

Bada, hazkunde ekonomikoa %2,9 izan arren, egindako aurreikuspenen oso azpitik dago. Gertatzen ari dena da, geldialdi ekonomiko baten biharamunean, non asumitu zen ekonomia kolpetik gelditzea eta ondoren bere kabuz errekupeatuko zela, ekonomia 2019. urteko baloreetara bueltatzen ari dela. Horregatik, gaur egungo egoerari ez zaio aurre egiten ari atzeraldi ekonomikoaren ikuspegitik.

Zentzu horretan, 2023ak ekonomiaren bilakaera ezagutzeko argazki errealegoa emango digula. Ekonomiaren eguneratzea, gerraren ondorio zein iraupenak baldintzatuko du.

HIRU

Hainbat koordenada aldatu dira. Jendarte hainbeste aldaketa jazo dira, Estatuak merkatuak edota elementu estrategikoen inguruko aliantzak aldatzeko abagunea izan duten. Aldaketa hauen eragina estatu barnean edota estatuen artean zer nolakoak izango diren ez dakigun arren. Dena den, aldaketa geopolitikoek aitzakia eman dute produktu batzuen eskasia justifikatzeko, prezioak igotzeko edota lan baldintzatan eragiteko.

Egun hartzen ari diren hainbat neurri, ez dira soilik inflazioari aurre egiteko. European panorama txarra aurreikustearen ondorioz, langile klasearen sakrifizioan oinarritzen diren politika ekonomiko zehatz batzuk aplikatzera zuzenduta daude. Gaur egun, ordea, ezin dugu esan Europa atzeraldi ekonomiko batean sartuko dela, ez ditugu datuak hori baieztatzeke, baina aplikatzen ari diren politiken norabideak horretara garamatza. Dena den, izango dugu aukera hurrengo Ikusmiran argitalpenetan zehaztasunetan sartzeko.

Goazen harira!

ONDORIO POLITIKO NAGUSIAK

Ekosozialismoa, feminismoa, demokratizazioa eta nazio garapena ardatz izango dituen Euskal Esparru Sozioekonomikoa eratzea proposatu genuen Programa Sozioekonomikoan.

Prekarizazio prozesuari aurre egin eta bizitza bizigarriak helburu, enplegua, zaintza eta ondasunen banaketa kontutan hartuko duen proposamen integrala ere kaleratu genuen, banaketa hirukoitza gisa ezaguna egin dena, eta bide horretan aurrera egiteko proposamen zehatzak.

Bada, 11. Ikusmiran honetatik osatu dugun euskal langileen lan eta bizi baldintzen argazkitik ondorioztatu dezakegu Euskal Esparru Sozioekonomikoa klase lehentasuna izateaz gain, gure herriaren garapen iraunkorrerako ezinbestekoa ere badela. Izan ere, nekez egin dezake aurrera herri batek, bertako langileriak ez badu bizitza duin baterako gutxieneko baldintzarik. Gauza bera esan dezakegu, gure herrian sortzen den aberastasuna gero eta modu desorekatuagoan banatzen bada, datuek berretsi duten bezala, kapitalaren errenten mesedetan eta langile klasean arrakalak sortuz.

Euskal Herriko langileen lan eta bizi baldintzen begirada osatu batek argi gorriak piztera eraman behar gaitu. XXI. mendearen hasieratik krisi ekonomikoak kateatzen ditugu eta patu saihestezin gisa aurkezten dizkigute langileok eta herri sektore guztiok ustez egin beharreko esfortzuak. Bizi dugun kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka honetan, begiradaren ikuspegi okerrak benetan gertatzen ari denaren gaineko ikuspegia erratzera eraman gaitzake. Gure ikusmiran bizitzaren sostengua dugunok, bizitza duinerako gutxieneko mugak aztertu behar ditugu. Enplegua izateak gure jendartearen iruditegian pobrezia ihes egiteko status nahikoa bezala ezarri izan da, baina datuek argi erakusten digute gaur gaurkoz hori ez dela nahikoa.

Hego Euskal Herrian bi herritarretik bat bizitza duin baterako diru sarreren kopuruaren azpitik dago.

- 25 eta 64 urte bitarteko herritarren %53,52ak egoera prekarioan bizi da, lan duinik gabe eta diru-sarrera ez-nahikoekin. 812.068 herritar langabezia egoeran, egoera inaktiboan edo 1400 eurotik beherako diru sarrerekin bizi da.
- Era berean, pentsiodunen %34,2k 1000 eurotik beherako pentsioa jasotzen du. Eskuaratean ditugun datuekin kopuru zehatza ezin badugu kalkulatu ere, 1200 eurotik beherako pentsioa jasotzen dutenen kopurua oraindik eta altuagoa izango dela pentsa daiteke.

Bi datu horien bidez ikus dezakegu, langabezia eta kontratazio datuetatik harago, azpimarra jarri behar dela bizitza duinerako baldintzak eskuratzeko ardatzean. Bistan denez, prestazioek, soldatek eta pentsioek ez dute herritarren erdia diru sarrera nahikoen mugaren gainetik kokatzen. Merkatuak ez du bere burua erregulatzen, aberastasuna metatzera eramaten du, besteak beste desjabetuz edo pobretuz.

Argazki finko eta estruktural honek bizi dugun egoeraren bidegabekeria seinatzen du. Kezka biderkatzen dute, ordea, joerek. Esan bezala, azken 15 urtetako krisi ekonomikoak nahikoa ez eta sakoneko arazo ekonomiko eta sozialak areagotzen ari den egoera bizitzen hasi besterik ez dugu egin. Joera horietatik azpimarra egin nahi diegu hauei:

- Emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala izugarria eta estrukturala da. 1.000 eurotik beherako pentsioa kobratzen duten 3tik 2 emakumezkoak dira, esaterako.
- Gazteen eta helduen arteko arrakala handitzen ari da. Egun gazte diren belaunaldiek gainditzeko zaila izango duten egoera iraunkor bilakatzeko joera nagusitzen ari da.
- Pobrezia egoeran daudenen kopurua handitzen ari da, muturreko pobrezia arriskuan daudenen tasak ere gora egin du, aberastasunaren banaketa indizeek banaketa hori gero eta modu desorekatuagoan gauzatzen dela adierazten dute, kapital errenten mesedetan.
- Kontsumorako prezioen indizeek urte eta erdi honetan bizi izan duten gorakada bortitzak eragin oso sakona izan du langileen eta herritar xumeen eros ahalmenean. Ikusi dugun bezala populazioaren erdiak diru sarrera mugatuak ditu eta haien funtsezkoak diren produktu edo gastu eremuetan eman da igoerarik handiena.
- Prezioen gorakadaren ondoren, egiturazko esparru batzuetara iritsi dira igoerak: etxebizitza. Alokairuen igoerek edo hipoteken gastuen gorakada handiek oso diru sarrera mugatuak dituzten pertsona, kolektibo edo familiak pobrezia egoerara bultzatu ditzakete.

Testuinguru honetan iristen dira sakrifizio edo esfortzu deialdiak instituzioetatik eta irabaziak pilatzen ari diren enpresetatik. Lan baldintzetan eta soldatetan erasoak pairatzen ari gara eta datuak datu enpleguaren egoera ez dela hobetzen ari berresten dugu.

- Kontratazioaren eremuan behin behinekotasunarekin amaitzeko ustezko xedea zuen lan erreformak. Ia xede bakarra. Baina, kontratu finkoen artean orain arte ez bezalako etete kopurua ematen ari da eta proba epealdiaren ondorengo kontratu etetea neurrigabe igotzen ari da. Patronalak lan erreforma ez nahiko baten helburu nagusiari zuloa eta ihesbidea bilatzen ari da eta, antza, topatu du.
- Industria eremuan enplegu galerak jarraitzen du, urtez urte eta krisiz krisi. Baldintza hobeak eta soldata altua dituzten enpleguak suntsitzen eta baldintza prekarioetan oinarri duten zerbitzu enplegu eredua bultzatzen eta sortzen ari da.
- Hego Euskal Herriko behin behinekotasun tasa (%24,5), Europar Batasuneko altuenen artean dago. EB-ren batez bestekoa %14,5a da.
- Ez da harrizkoa azken urte honetan eman den lan gatazken ugartzea eta, batez ere, zerbitzuen esparruan ematea greba gehiago eta greba egun gehiago.

ONDORIO NAGUSIEN AZTERKETA

Jarraian, euskal langileriaren lan eta baldintzen argazkia osatuko dugu, horretarako hamar ondorio politiko nagusiak xehetuz.


1. Hego Euskal Herriko 25 eta 64 urte arteko herritarren %53,52a egoera prekarioan dago, lan duinik gabe eta diru sarrera eskasekin.

Prekarietatea eredu kapitalistak kronifikatu duen errealitatea da, lan eta bizi baldintzak okertu eta norbere bizi proiektua modu duinean garatzeko ezintasuna eragiten duena. Testuinguru sozioekonomiko ezegonkor honetan, LAB sindikatuak krisi ekosozial gisa definitu duena, langabezia ezin da modu isolatuan ulertu ezta interpretatu ere. Izan ere, langabezia egoeran dagoen herritar kopuruaz gain, Euskal Herrian badago jende kopuru zabalagoa prekarietatean bizi dena. Beraz, errealitatea ikusmira orokor horretatik aztertu dugu.

Batetik, langabezia datuak ditugu. Hego Euskal Herrian langabezia jaitsi bada ere (%8,76a Biztanleria Aktiboaren Inkesta, 2022ko 2.hiru-hilabetea), kopuru altuetan egoten jarraitzen du. 115.600 dira langabezia egoera honetan dauden herritarrak. Zentzu honetan, arreta jarri behar da ere datu zehatz batzuetan:

- Gazteen %24,6a EAE-n eta %20,06a Nafarroa Garaian langabezia dago
- Herritar migratzaileen %25,74a EAE eta %24,98a Nafarroa Garaian langabezia egoeran dago.
- Emakumeak ere (%9,25), gizonen (%8,30) gainetik kokatzen dira langabezia tasari dagokionean.

LANGABEZIA TASA HEGO EUSKAL HERRIAN



Iturria: EPA

Bestetik, egoera inaktiboan dauden 24- 65 urte arteko herritarrak daude, arrazoi ezberdinak tarteko enplegurik ez dutenak, alegia. Hauen artean, etxeko lanetara dedikatzen diren 198.800 herritar daude (emakumeak gehienak), inolako aitortzarik ezta soldatarik gabe ere, bizitzari eusteko ezinbestekoak diren lanak egiten dituztenak.

Amaitzeko, 1.400€ baino gutxiago kobratzen duten langileen multzoa kuantifikatu dugu, enplegua izan arren, LAB sindikatuak aldarrikatzen duen gutxieneko soldataren azpiko ordainsaria dutenak. Izan ere, gaur egun enplegua izateak ez du beti ziurtatzen bizitza duina izateko lan zein bizi baldintza nahikoak, behin eta berriro salatu dugun bezala. Langile multzo hau 402.400 pertsonen osatzen dute.

Langabeziaz harago, eta hau guztia kontutan izanda, Hego Euskal Herrian 812.068 herritar bizi dira egoera prekarioan edota lan duinik gabe; hau da, 25 eta 64 urte arteko biztanleriaren %53,52a langabezia egoeran dago, ez-aktiboak dira edota 1.400€-ko soldataren azpitik jasotzen dute. Azpimarratzekoa da horietatik %24,5a etxeko lanetan dabilzanak izatea, emakumeak gehienak.

Egiturazkoa bilakatu da aberastasuna modu oso desorekatuan banatzea. Egun lan merkatua egituratua dagoen bezala, enpleguak ezin du langileon bizitza duina bermatu; izan ere, Hego Euskal Herriko 25 – 64 urte arteko bi herritarretik bat egoera prekarioan bizi baita.

2. Pentsiodunen %34,5ak 1.000€ baino gutxiago kobratzen du

2011 eta 2013ko pentsio erreformak lehengoratu gabe, hartzen diren neurriek ez diote egiturazko arazoari erantzungo. Beraz, murrizketatan oinarriturik egoera baten gainean eraiki da 2021. urteko pentsio erreforma berria. Zentzu horretan, urte luzez lanean egon ondoren, pentsioaren kopurua kalkulatzeko urte gero eta gehiago beharko dira eta pentsioen eguneratzea ez-nahikoa da bizitzaren garestitzeari aurre egiteko. Ondorioz, pentsiodunak ere erosahalmena galtzen ari dira.


Hego Euskal Herriko pentsiodunen %34,5ak 1000 euro baino gutxiago kobratzen du. Era berean, 1.000 – 2.800 euro artean kobratzen duten pentsiodunak %57 badira, pentsa liteke 1.200€ eurotik behera kobratzen duten pentsiodun asko egongo direla multzo horretan, nahiz eta datu zehatzik ez dugun. Beraz, Hego Euskal Herriko pentsiodunen artean multzo oso handi bat dago bizitza duina bermatzeko diru sarrera nahikorik gabe.

HEGO EHKO PENTSIONISTA KOPURUA PENTSIONEN ARABERA TRAMOKA BANATUTA (2021)			
	1.000€ edo gutxiago	1.000€ eta 2.800€ artean	2.800€ baino gehiago
Pntсионista kopurua	222.123	365.477	56.705
Pentsionisten %	%34,5	%57	%9

Iturria: Espainiar Estatuko Gizarte Segurantzza

Pentsiodunen artean ere, arrakala handia dago sexuaren arabera. Izan ere, 1000 euro azpiko pentsioa jasotzen duten pentsiodunen artean %66,7a emakumezkoa da.

1.000€TIK BEHERAKO PENTSIONISTEN BANAKETA SEXUAREN ARABERA



Iturria: espainiar estatuko Gizarte Segurantzza

3. Soldata arrakala egiturazkoa da.

Sexuaren arabera soldata arrakala egiturazkoa da, sistemak berak ahalbidetu eta iraurazten du, arrakala txikitu edota ezabatzeko inolako neurririk hartu gabe. Arrakala ez da sexuaren arabera soilik eta adina, jatorria edota kontratu motaren arabera gero eta ezberdintasun handiagoak daude. Lan bera egiteagatik, jendartea dualizatzeko joera gero eta handiagoa atzematen da.

Generoaren arabera, ezberdintasunak oso handiak dira. Emakumeen batezbesteko soldata, batezbesteko soldataren azpitik zegoen 2020.urtean, emakumeek 3.171€ gutxiago jaso zituzten. Pertzentil baxueneko emakumeek, aldiz, batez beste baino 20.371€ kobratu zituzten.

Gazteen arteko arrakala handitzen ari da, gazteek gero eta soldata exkakagoa dute batez bestearekiko. Horri gehitu behar diogu, aldi hori ez ote den adinean aurrera joanda ere estruktural bilakatzen ariko. Hau da, gazte belaunaldiek bizitzen duten arrakala izatea, baina adinean aurrera eginda belaunaldi hauek gaintutuko ez duten arrakala izatea. Izan ere, lehen aldiz, 35-44 urte arteko langileen soldatak balio negatiboa du batezbesteko soldatarekiko. Ezin dugu esan joera bat denik, baina aurrerantzean arreta jarri beharreko datua da.

Nazionalitatearen arabera soldata arrakala aztertuz, espainiar estatutik kanpoko nazionalitatea dutenen soldata, batezbesteko soldata baino 9.214€ baxuagoa izan zen 2020ean.

BATAZBESTEKO SOLDATA ETA HORREKIKO ALDEA HEGO EUSKAL HERRIA (€/URTEA)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
BATAZBESTEKO SOLDATA	25.050	25.590	25.970	25.920	25.910	26.210	27.070	26.940	27.020	27.760	27.875	29.022	29.582
BATAZBESTEKO SOLDATA OROKORREKIKO ALDEA													
Pertzentil baxuena	-15.720	-15.730	-16.380	-16.470	-17.040	-17.110	-17.920	-17.330	-17.510	-17.650	-17.885	-18.425	-18.246
Pertzentil altuena	16.240	16.510	18.140	16.380	17.450	18.490	18.630	18.040	19.020	18.440	19.555	19.514	19.973
EMAKUMEAK													
Batazbestekoa	-3.850	-3.760	-3.880	-4.020	-4.240	-4.250	-4.110	-4.070	-4.150	-4.110	-3.591	-3.391	-3.171
Pertzentil baxuena	-16.890	-17.430	-17.750	-18.300	-18.520	-18.730	-19.840	-19.540	-19.640	-19.820	-19.907	-20.460	-20.371
Pertzentil altuena	10.930	12.890	13.460	11.930	12.480	13.380	13.930	13.970	14.280	14.090	15.997	16.424	16.835
GIZONAK													
Batazbestekoa	2.840	2.800	3.120	3.190	3.610	3.520	3.580	3.590	3.540	3.390	3.539	3.057	3.063
Pertzentil baxuena	-11.700	-11.490	-12.640	-12.290	-13.270	-14.490	-14.400	-13.090	-14.380	-13.890	-13.351	-14.710	-14.748
Pertzentil altuena	18.890	19.040	21.000	19.760	21.320	22.870	22.680	21.490	22.320	21.820	22.457	22.717	22.928
ADINAREN ARABERA													
25-34 urte	-2.820	-3.220	-3.320	-3.370	-3.730	-4.560	-4.410	-4.960	-5.250	-5.840	-5.701	-6.003	-5.925
35-44 urte	280	320	330	620	280	370	10	210	190	110	126	410	-937
45-54 urte	3.460	3.060	3.920	2.950	2.950	2.550	2.580	2.050	2.150	1.990	2.762	2.360	1.895
55 urte edo +	1.920	1.430	1.710	1.440	1.070	1.730	2.230	2.540	2.160	2.410	3.208	2.818	1.814
KONTRATU MOTAREN ARABERA (Batazbestekoa)													
Mugagabea	1.840	1.500	2.200	1.900	1.800	1.930	2.060	1.750	1.660	1.610	2.185	2.162	1.526
Behin behinekoa	-6.090	-5.340	-7.030	-7.050	-7.540	-8.350	-8.110	-7.390	-8.130	-7.540	-6.921	-6.918	-5.950
NAZIONALITATEAREN ARABERA													
Estatu Espainiarra	308	265	370	349	401	331	455	274	294	404	587	516	33
Estatu Espainiarretik kanpo	-7.526	-7.353	-7.015	-8.058	-8.984	-8.217	-10.249	-7.078	-7.501	-8.831	-7.693	-9.429	-9.214


Iturria: INE. Soldatari buruzko inkesta

4. Aberastasuna gero eta modu desorekatuagoan banatzearen ondorioz, pobrezia eta bazterketa soziala lehen mailako arazoa da Euskal Herrian.

Hego Euskal Herriko datuek pobretzea eta bazterkeria soziala lehen mailako arazo bezala kokatzen dute. Ikusmiran honetan bildu ditugun adierazle zein ratioek aberastasunaren banaketa gero eta modu desorekatuagoan banatzen dela adierazten digute, munduko herrialdeen arteko banaketa bidegabeaz gain, herrialde bereko herritarren arteko ezberdintasunak areagotuz. Aberatsak aberatsago diren bitartean, pobreak pobreaagoak dira.

Datuek erakusten dutenez pobrezia tasak handitzen ari dira eta sortzen den aberastasuna murriztu ez bada ere, aberastasun horren banaketa bidegabeak gero eta egoera makurragoak sortzen ditu.

- Pobrezia arrisku tasa Nafarroan %21,3koa da eta EAEn %17,8koa, biak Europako batezbestekoaren gaineratik (%17,4)
- 2008. urtetik pobrezia egoera larrian dauden herritarrak bikoiztu dira. Egun, EAEko biztanleriaren %6,1a pobrezia egoera larrian bizi da.
- Bazterketa soziala neurtzeko azter daitezkeen dimentsio ezberdinetatik gero eta gehiago dira dimentsio gehiagotan baztertuak diren herritarrak: 2018 urtean %4a bazen, 2021. urtean 2,7 puntu gora egin du, %6,7an kokatuz.
- Orokorrean, eta aberastasunaren banaketa neurtzen duten adierazleetan okerreko joera begi bistakoa da bada ere, nahikoa da ikustea Barne Produktu Gordinarekiko soldaten pisu galera ez dela zuzendu azken hamarkadan, (pandemia garaiko geldialdiaren ondorengo "errekuperazioa" salbuetsita)




5. Langileok erosahalmena galtzen ari gara

Urte hasieratik jazotzen ari den KPI-aren igoeraren ondorioak jadanik ia 6000 euro galdu dituen langileriaren bizkar gainera eroriko dira. Hamarkada oso baten balantzea edo ondorioa izan da langile klaseak erosahalmenean izan duen galera. Zentzu horretan, jadanik zulatua zegoen egoera batean etortzen da KPI-aren igoeraren ondorioak.

Eskuartean ditugun datuak 2020. urtera artekoak dira eta ezin dugu egun KPIaren igoeraren ondorioa datu ofizialekin kontrastatu, baina larrialdirako dei bat izango dela suposa dezakegu, langile eta herritar xumeen bizi baldintzatan jadanik izaten ari diren ondorioak ikusten ari baikara. Zentzu horretan, soldaten aurka planteatzen ari diren ildoak (errenten paktuaren bidez, adibidez), soldatak kaltetu eta erosahalmena galtzera dator, jadanik hamarkada batean sakrifizioa egiten aritu diren langileen bizkar.

KPI-aren gorakadak oinarrizko produktuen prezioetan izan du eragin handiena. Modu honetan, elikagaiak eta edari ez alkoholikoak, etxebizitza dagozkion gastuek edota garraioak izan dute igoerarik handiena. Hain juxtu, familia pobreenek gasturik altuena egiten duten produktuetan. Beraz, diru-sarrera baxuenekin bizi diren familiak dira KPI-aren igoera gehien pairatzen ari direnak, oinarrizko produktuetan gero eta gehiago gastatzen ari direnak, ziurrenik kalitate zein kantitate txikiagoan erosita ere eta bizitzaren bestelako esparruetako beharrak ase gabe utziz.

KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA. 2021 OINARRIA



PREZIOEN URTE ARTEKO ALDAKETA. ONDASUN-MULTZO ETA ZERBITZUEN ARABERA. 2022

	2022 abuztua arteko aldaketa		2022ko urria arteko aldaketa	
	EAE	NAFARROA GARAIA	EAE	NAFARROA GARAIA
Indize Orokorra	%10,3	%11,0	%5,0	%5,6
01 Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	%13,5	%14,3	%1,3	%2,6
02 Tabakoa eta edari alkoholodunak	%5,1	%4,3	%1,0	%0,8
03 Arropak eta oinetakoak	%4,5	%5,3	%1,0	%1,1
04 Etxebizitza, ura, argindarra, gasa eta bestelako erregaiak	%25,9	%30,3	%20,9	%22,7
05 Altxariak, etxeko gaiak eta etxeko mantentze lan arruntak	%7,4	%9,9	%2,3	%2,6
06 Osasuna	%0,6	%1,3	%1,0	%1,7
07 Garraioa	%10,5	%12,0	%11,8	%12,0
08 Komunikazioa	%-2,2	%-2,3	%-0,4	%-0,7
09 Aisia eta kultura	%4,9	%4,7	%1,7	%1,2
10 Hezkuntza	%1,5	%-5,3	%1,8	%-5,3
11 Jatetxe eta hotelak	%7,4	%6,5	%1,0	%1,9
12 Bestelako ondasun eta zerbitzuak	%4,3	%3,7	%2,0	%1,4

Iturria: INE

6. Etxebizitza gastuaren igoera bortitza ematen ari da.


Etxebizitza prezioaren gorakada abiadura bizian gertatzen ari da, diruaren prezioaren zein kontsumorako produktuen prezioen garestitze orokorra gertatzen ari den aldi berean. Dimentsio handiko diru gastua da herritarrentzat eta oso epe laburrean garestitze azkarra gertatzen ari da. Ondorioz diru-sarreretatik dedikatzen zaion kopurua handitu eta handitzen jarraituko du, prezioak garestitzen ari diren bitartean langile klasearen soldatak KPI-aren arabera eguneratu gabe jarraitzen baitute oro har. Etxebizitza erosteko edo alokairua ordaintzeko bideratzen dugun dirua handitzeak, pobretzea ekarriko digu, hain zuzen ere, bestelako eremuetan ezingo dugulako gastatu (kalefakzioa gutxiago jarri, elikadura osasuntsuaren kaltetan...). Beraz, eta zalantzarik gabe, egiturazko egoera baten okertzearen aurrean gaude.

Jarraian, ikus ditzakegu lurralde eremu ezberdinetako etxebizitzaren prezioen edota alokairuen igoerak.

- Etxebizitzaren m2 gero eta garestiago dago: pasa den urtetik %6,2 garestitu da Nafarroan eta % 2,4 EAEn
- Soldata garbiaren %30a etxebizitza ordaintzera bideratuko bagenu, Nafarroa Garaian 43 urte baino gehiago beharko genituzke etxebizitza ordaintzeko, duela urte bat baino bi urte gehiago. Kontutan izan 2020.urteko datuak direla.
- Nafarroa Garaian, 2020.urtean, soldata garbiaren %37,74a bideratzen da alokairua ordaintzera. Emakumeen bideratzen duten soldataren proportzioa (%43,33a), gizonezkoena baino altuagoa da (%34,26)
- Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko kasuan, soldata garbiaren erdia baino gehiago bideratzen da alokairua ordaintzera, %50,31a (emakumeek %54,53a eta gizonezkoek %46,02a).

Aipatu ditugun datuak 2020.urtekoak dira, besteak beste, Euriborrak udatik hona izan duen gorakada ikusgarria kontutan hartu gabe. Gutxi gora behera, hipotekak urrian eguneratu dituzten herritarrek, hilabetero 200€ gehiago ordaindu beharko dituzte.

EURIBORRAREN BILAKAERA (2022)



Iturria: The European Money Markets Institute

7. Lan erreformak ez ditu lan merkatuko arazoak konpondu eta patronalak neurria hartu dio.


Bere garaian salatu genuen bezala, abiapuntutik, lan erreforma ez-nahikoa egin zen estatu espainiarrean eta abordatu gabeko puntu asko gelditu ziren. Datuak eskuartean, ordea, abordatu dituenetan ere eskasa izan da eta patronalak jakin du zuloa estaltzen, egoera bere horretan konpondu gabe jarraitzen du.

Kontratu finkoen etetea gertatzen ari da eta inaktibitatera pasoa, lehen ez bezalako kopurutan igoera nabarmena gertatzen ari da. Hori gertatzen da behin behin-behinekotasuna ordezkatzeko ari delako, neurri handi batean, aldizkako finkoen figuratik eta ez kontratu mugagabeen ugaritzeagatik.

Zentzu berean, ihesbide garbia da proba-aldia ez gainditzeagatik bajen tasa hirukoiztu izana. Oso izaera tekniko duen epealdia izanik, oso ongi justifikatu beharrekoa. Aldiz, langileak ebentualki lan egin eta lan zehatz batera egokitzeko baliatzen da; epeen barnean kaleratu eta, beharbada, beste bat kontratatzeko. Gutxitan kontratu finkoa eginez.

LAB sindikatuak lan erreformari egiten zion kritiken artean, salatu genuen patronalari ihesbide bat proposatzen ari zitzaiola, langileen kaleratzea edota lan baldintzen okertzea ahalbideratzeko. Zoritxarrez, datuek erakusten duten hori gertatzen ari dela, modu esanguratsuan.

ERREGIMEN OROKORREKO AFILIAZIOAREN BAJA EMATE TASA, KONTRATU MUGAGABEAREKIN (ZERGAITIAK)



8. Zerbitzuetan oinarrituriko lan merkaturanzko joera nagusitzen ari da

Azken hamarkadetako joera hau krisis krisi areagotzen ari da. Azken urtetan bizi izan dugun krisi bakoitzaren ondorioetako bat izan da ehun industrialaren eta enplegu industrialaren galera. Gaur egun, Hego Euskal Herriko landunen %21,4a industria sektorekoa da. Sektore hauetan egon dira kalitate eta soldata maila handieneko enpleguak Euskal Herrian, eta kezkatzekoa da hauen etengabeko galera.

- Industrian, pasa den urtean baino 19.600 landun gutxiago daude
- Jaitsiera nagusia manufaktura industrian gertatu da, 19.500 landun gutxiagorekin.


Beste sektoreetan joera kontrakoa da, zerbitzu izaera duten lanpostuen pisua nabarmen handituz. Industrian gero eta langile gutxiago dauden bitartean, komertzioan areagotzen ari dira. Kontutan hartu behar dugu komertzioa prekariedade eta ezegonkortasun handiko sektorea dela eta honen hazkuntzak gainerako sektoreetan eragina izan ohi duela, langileon lan eta bizi baldintzak okertuz.

- Komertzioan eta ostalaritzan etengabea da landunen kopuruaren hazkundera, pasa den urtetik %20,9 igo baita.
- Administrazio publikoan landunen %25,2a egonik, pasa den urtetik hona %2,3 besterik ez dira igo jarduera mota honetako okupatuak.

9. Egungo enplegu prekarioak ezin du bermatu langileon bizitza duina

Hego Euskal Herriko behin behinekotasun tasa, Europar Batasuneko altuenen artean. Behin-behinekotasuna segurtasun ezarekin eta lan errotazioarekin lotutako faktore bat da, baina soldata baxuagoekin eta lanbide sustapen zein garapenerako aukera gutxiago izateko ere lotuta dago.

Bada, Hego Euskal Herriko behin-behinekotasun-tasa Europar Batasuneko handienetakoa da, % 24,5 ingurukoa, Europar Batasuneko batez bestekoaren (% 14,4) gainetik. Behin-behinekotasun tasa handiegia, gure lan-merkatuaren ezaugarri nagusienetakoa izaten jarraitzen du



10. Lan baldintza duinen aldeko konfliktibitatea handitzen ari da.

Ez da harrizkoa testuinguru honetan lan gatazkak ugaritzea. EAE-n 2021. urtean greben kopurua %30,5a handitu zen. Ez da gutxietsi behar krisi testuinguruetan zabaltzen den beldur eta desaktibazio mezuaren ahalmena. Baina, halaber, krisi hauen erantzukizunaren ulermena eta lan baldintza duinekiko aldeketasuna gero eta hedatuagoak daude.

Lan esparruko konfliktibitatea hazten ari da etengabe, greba kopuru zein lan egin gabeko jardunaldiei dagokionean. Lan baldintza kaskarrenak eta bizitza duinari heltzeko diru sarrera nahikoak eskuratzeko zailtasun handienak ematen diren sektoreetan ematen ari da gatazken ugaltze handiena:

- EAE-ko greben %54,1a zerbitzuen sektoreari dagokio EAE-n, eraginpeko langileen %72,3a biltzen duena
- Sektore honetan ematen dira greba egunen %51 ere

Beraz, industriako grebek ohiartzun handiagoa izan arren, sektore feminizatuak dira greba borrokarako tresna gisa gehien erabiltzen dutenak, emakumeak nagusi diren sektore prekarioak. Greba hauek egiten diren testuinguruaz jabetu behar gara; izan ere, sindemia ondorengo KPI-aren gorakada ematearekin batera, lan baldintzen kaxkartze orokorra ematen ari baita zerbitzuak sektorean.

